
KIRIKINOKO
UDAZKEN -
NEGUKO
ESKAINTZA
DARAMAGU
BIHOTZEAN
BAT
Euskararen semaforoa
EEEGG
Euskara hutsez

SORGIN ZAPATUAK

Laudioko udalarekin elkarlanean burutzen den proiektua da. Larunbat arratsaldeetan, 5 urtetik gorako haurrentzako euskarazko aisialdi eskaintza osatzea du helburu. 24 saio daude ikasturtean zehar eta hauek dira Kirikinok burutuko dituenak. Saio guztiak 17:30etatik 19:30ak bitartean dira, unean bertan ematen da izena eta dohakoak dira.

Urriak 10, Lezeaga aretoan
"Lagunekin baratzean" ikuskizuna, askaria eta pintza zomorroak eskulana

Azaroak 21, Lezeaga aretoan
"Delika bizirik!" ikuskizuna, askaria eta igela eta euliaren jolasa

Abenduak 19, Lezeaga aretoan
Neguko gozoen tailerra, askaria eta elur malutak eskulana







TERTANGAKO EGONALDIAK

Kirikinotik ikasturtean zehar bi asteburu pasa antolatu ohi ditugu. Hauen xedea, haurrek, 2-3 eguneko euskarazko aisialdi eskaintzaz gozatzea da, auzolana, talde lana, natura, hezkidetza eta zaintza bezalako balioetan oinarrituz.

Udazkeneko egonaldia

Azaroaren 14 eta 15 egunen bitartean Tertangako aterpetxean eta herrian burutuko da egitasmoa. 2020-2014 urteen artean jaiotako haurrei zuzendutako eskaintza da. Ekintza eta jolas ezberdinak egongo dira asteburu osoan zehar, sukaldatu zein inguruneak ezagutzeaz harago.

Prezioa

Kirikinoko bazkideak 70€ eta Kirikinoko bazkideak ez direnak 80€.

Izen ematea

Azaroaren 8a bitarte egongo da zabalik izena emateko epea. Plaza mugatuak daude eta izenemateakirikino@gmail.com helbidearen bidez izena eman daiteke. Zalantzak 688 726 665 zenbakian argituko dira (14:00-18:00). Familia bilera egingo da azaroaren 9an, 18:00etan Basoa gunean.

KIRIKINOREN ORTUA

2019ko udaberritik Kirikino aisialdi taldeak baratzea du Laudioko udal ortu komunitarioetan. Bertan, adin guztietara bideratutako tailerrak burutzen dira asteburuetan, jaten dugunaren gaineko kontzientzia hartzea helburu eta naturarekin dugun harremanetan eragiteko asmoarekin. Parte hartzeko, 688 726 665 zenbakira idatzi bertaratuko zarela abisatuz eta zalantzak izatekotan bertatik argituko dira.

Urriak 17, Basoa gunean
11:00etatik 14:00etara
Piperrak erretzeko tailerra

Urriak 18, Kirikinoren baratzean
11:00etatik 14:00etara
Neguko baratzea atontzeko auzolana

Urriak 31, Ekintaekonen lokala (Abasto plazan)
12:00etatik 13:00etara
Kalabazak hustutzeko tailerra



GASTEIZKO IZOTZ PISTARA TXANGOA

Abenduaren 28an izango da txangoa. Goiz bazkaldu beharko dute parte hartzaileak, izan ere, 15:00etan batuko dira denak Laudio institutuko autobus geltokian, Gasteizera abiatzeko. Bidaia, lineako autobusean burutuko da eta Gasteizko Florida parkeko izotz pistan patinatuko dute parte hartzaileek.

Hitzordura, motxilan besteak beste eraman beharko dituztenak, askaria eta eskularruak izango dira. Merienda ondoren berriz, Gasteizko parke batzuetan jolas eta dinamika desberdinez gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnak.

Itzulera, autobusez izango da baita ere, eta familiekin 20:00etan batuko dira haurrak Laudio institutuko autobus geltokian.

Izen ematea eta prezioa

Kirikinoko bazkideak diren horiek, 12€ ordaindu beharko dituzte txangoagatik, bazkideak ez diren horiek aldiz, 17€. Izena emateko azken eguna, abenduaren 20a izango da eta txangoak plaza mugatuak izango ditu. Izena emateko, mezu bat bidali beharko da izenemateakirikino@gmail.com helbidera eta zalantza guztiak 68872665 zenbakian argituak izango dira.



URTEAN ZEHAR HAINBAT OSPAKIZUN

Kirikinotik urtean zehar beste hainbat eragilerekin elkarleanean hainbat jarduera antolatu ohi ditugu, jarraian 2026ko hainbat ekintza.

Urriak 30, Gau beltza
18:00etatik aurrera: Lamuza parkean eta herriko plazan

Urriak 31, Gau beltza, 12:00
Kalabazak hustutzeko tailerra, Ekintaekoneko lokalean (Abasto plazan)

Azaroak 28, eskualdeko euskararen eguna Laudion
Egun osoko egitaraua: puzgarriak, jolasak, bazkaria, ikuskizunak, dantza plaza...

Abenduak 14, Laudioko herri azoka
11:00etatik aurrera, herriko plazan azoka, musika, jolasak, tailerrak...

Abenduak 13, neguko gozoen sukaldaritza tailerra
17:00etatik aurrera Basoa guneko sukaldean

Abenduak 19, neguko solstizioa Basoan
Goizean zehar, ikazkinaren bisita, ipuin kontalaria, txokolate jana eta jolasak

Abenduak 20, San Joanen
Kalejira, haurrentzako tailerrak, hamaiketakoa eta ikazkinak

Abenduak 24, Maridomingi eta Olentzeroren kalejira
Arratsaldez, herriko kaleetan zehar

Abenduak 26-30, gabonetako haurren parkea Aldai plazan
11:00etatik 14:00etara bitartean, puzgarriak, jolasak eta tailerrak

AISIALDIKO
BEGIRALE IKASTAROA

2026-2027 IKASTURTEA

Laudio

Eusko Jaurlaritzaren agiri ofiziala

Iraupena:
150 ordu teoriko
160 ordu praktiko.

Azarotik apirilera.
9 asteburu Laudion
3 egonaldi aterpetxean.

Baldintzak.
17 urte izatea edo 2026an beteta edukitzea.

Prezioa: **485€***

* Ikastaroa bere osotasunean gainditzen dutenei matrikularen zati bat bueltatuko zaie.



EUSKARAZ

EMAN IZENA
urriaren 23a baino lehen!

www.urtxintxaeskola.eus

Informazio gehiago:
944 320 445
eskola@urtxintxaeskola.eus

urtxintxa eskola

Kirikiños taldea

Diruz laguntzen du:
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava



IZAN ZAITEZ BAZKIDE

Kirikinoko bazkideei esker egiten du aurrera gure proiektuak. Komunitate baten babesa ezinbestekoa baitugu egunerokoan. Baita ere, bazkideek egiten duten ekarpen ekonomikoa. Dena ez da eman ordea, bazkideek honako onuretaz gozatzen dute:



Urtean, 20€ko prezioa du bazkidetzak, eta gehienez 5 kide bazkidetu ahal izango dira. Bazkidetzeko izenemateakirikino@gmail.com helbidera idatzi dezakezu, zalantzak argitzeko 688 726 665 zenbakira deitu.